

27. eztabaidagaia

Sexu-harremanak

Kondoirik gabe askoz gehiago gozaten da.

28. eztabaidagaia

Etxeko lanak

“Gure aitak esaten du gizonek, gaur egun, gehiago laguntzen dutela etxean. Nik ez dut horretarako beharrik ikusten!”.

Zuk zer uste duzu esaldi horren inguruan?

29. eztabaidagaia

Berdintasunaren aroa?

Aukera-berdintasunaren aroan bizi gara. Emakumeek eta gizonek aukera berdinak dituzte. Zer uste duzu?

30. eztabaidagaia

Etorkizuneko gizartea

Etorkizunean gizartea bidezkoagoa/parekideagoa izatea belaunaldi berrien esku dago. Zer sorrarazten dizu gogoeta horrek?

31. eztabaidagaia

Zainketa beharrak

Pertsonok bizitza osoan zehar zainketa behar ezberdinak dauzkagu. Ados zaude esaldi honekin ala uste duzu ez daukagula besteen beharrik?

32. eztabaidagaia

Sexismoa

Agian noizbait gertatuko zitzaizun tokiren batera joan eta espero ez zenuen jarrera sexista bat ikustea, bizitzea. Zer sentitu zenuen?

33. eztabaidagaia

Genero-identitatea

Zakila duena mutila da.

